

AHOTSEN IRLA

ROBERT LOUIS STEVENSON

Moldapena eta lan orriak:

ALEX ALDEKOA-OTALORA

ANA ARAKISTAIN

DESCLÉE DE BROUWER

I

Keola, Molokaiko jakintsua zen Kalamakeren alabarekin, Lehuarekin, zegoen ezkontuta, eta emaztearen aitaren etxean bizi zen. Ez zegoen bere aita-ginarreba, profeta, baino gizon trebeagorik; izarretan irakurtzen zuen, gorpuen eta izaki gaiztoen bitartez igartzeko ahalmena zuen, mendi tontor gorenetaraino, **iratxo**en herrialdera joateak ez zuen beldurtzen, eta bertan antzinako izpirituak harrapatzeko **lakioak** ipintzen zituen.

5

Arrazoi hauengatik, ez zegoen Hawaiko erreinu osoan bera baino gizon kontsultatuagorik. Pertsona zuhurrek saldu eta erosi, ezkondu eta bizitzaren ildoak haren aholkuei jarraituz marratzen zituzten; erregeak berak ere birritan bidali zuen Konara Kamehameharen altxorren bila. Ez zegoen profeta baino



iratxo: desabrutxo bihurri nekagarriak.

lakio: sarea edo tranpa.

gizon beldurgarriagorik ere; bere etsai batzuk bere konjurioen indarraren eraginez gaisotasunak janda hil ziren; beste batzuk desagertu egin ziren, bai arima bai gorputz, eta jendeak alferrik **azterkatzen** zuen gorpu haien hezur bakar baten bila bazen ere. Antzinako heroiaren arteak eta dohainak zeuzkala esaka ibiltzen zen jendea. Gizon batzuek gauez mendian ikusi zuten **labar** batetik bestera saltoka, eta basotik paseatzen ikusi zuten, eta burua eta sorbalda arbolen **tantaienen** gainetik gailentzen zitzaizkion.

6

Gure Kalamake hau itxura arraroko gizona zen. Molokai eta Mauiko senitarte onenarikotik zetorren, eta bere **leinua** odolgarbia zen; hala ere, edozein arrotzek baino zuri itxura handiagoa zuen: ilajea belar sikuaren kolorekoa zeukan eta, bere begi gorriskek, ez zuten ia ikusten; horregatik irletatik zehar honako esaera hau **barreiatu**



azterka(tu): zerbaiten bila inguru batzuk arakatu, “registrar”.

labar: goitik behera ebakitako itsasbazterra, “acantilado”.

tantai: oso altuera eta sendoera handikoa.

leinu: arbaso berberengandik datozen belaunaldien segida.

barreita(tu): zabaldu, hedatu.

zen: “Geroa ikus dezakeen Kalamake bezain itsua”.

Keolak bazekizkien aitaginarrebaren egite hauek guztiak, alde batetik normalean esaten zenagatik eta, bestetik, susmatzen zuenagatik, baina ez zegoen gainontzekoaren jakinaren gainean. Dena den, kezkatzen zuen gauza bat zegoen. Kalamakek ez zion ezeri **muzin egiten**, ez jateko orduan, ez edaterakoan, ez janzerakoan, eta hori guztia dolar berri distiratsuekin ordaintzen zuen. “Kalamakeren dolarrak bezain distiratsu” Zortzi Irletako beste esaera bat zen. Eta salerosketan lanik egiten ez zuenez, eta ezta lurra **ereiten** ere, eta sorginkeriengatik bakarrik noizean behin kobratzen zuenez, inork ez zekien zein zen horrenbeste zilarrezko txanponen jatorria.

Kasualitatez, behin batean Keolaren emaztea irlako leku babesean dagoen Kakua-kakaira joan zen bisitan, bertakoak itsasoan arrantzan zebiltzanean. Baina Keola alferrontzia zen eta denborarik luzeena atari-aldean



muzin egin: zerbaiti ezetza eman modu txarrez.

erein: hazia lurrean hedatu erne dadin.